

Kultura

Bogoroditsie abesbatzak 'Herejía' ikuskizuna estreinatuko du Durangoko Kuruzesantu Museoan, zapatuan > 14



Igandeko 03:00etan
02:00ak izango dira

“Konpromiso eta asebetetze maila altuagoa da enpresa txikietan, lan ingurunea aberatsagoa delako”



Alaine Garmendia | Irakasle-ikertzailea > 10

Transmisioa landuko dute 'Agurrik gabeak' ekitaldian, domekan

Durango 1936 kultur elkarteak *Agurrik gabeak* ekitaldia antolatu du domekarako, 19:00etan, Plateruenean. Borrokalari antifaxistak gogora ekarrita, memoria historikoaren berreskurapenean eragin gura dute antolatzaileek. Aurten, bi familiako hiru belaunalditako kideek memoria historikoaren transmisioaren inguruan jardungo dute. > 2

“Neure buruagaz gustura sentitzeko lehiatzen naiz”

Mendi lasterketak afizio berantiarra bezain emankorra dira Silvia Triguerosentzat. 41 urteagaz emaitza bikainak izan ditu aurten ere. Tor de Geants Europako probarik gogorrenetakoan lortutako bigarren postua da horren adibide. Hala ere, ez du emaitzagatik lehiatzen, gustuko duelako baino. > 16-17



Argazkia: Lehior Elorriaga

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



PRODUKTU
BERRIAK!



EUSKARRI
IMANDUN
ZULAGAILUA



KAXA
ELEKTRIKO
ERAMANGARRIA



OLIOTARAKO
XURGAGAILU
INDUSTRIALA

Iurreta > 3

'Sarri'-ri buruzko dokumentala estreinatuko dute zapatuan

Durangaldea > 6

Astebete barru galdeketa egingo dute Atxondon

Mallabian > 8

Kaleratzeak salatuta, hilabete daramate greban Laiteken

Durangaldea > 6

A-8ko Gipuzkoako zatian, 45 euroko muga dute bizkaitarrek

Herririk herri

DURANGO Jone Guenetxea
Durango 1936 kultur elkarteak *Agurrik gabeak* ekitaldia antolatu du Plateruenean, domekarako, 19:00etan. Urtero legez, memoria historikoa berreskuratu guran, omenaldi xumea eskaini gura diete faxismoaren kontra borrokatu zirenei.

Edizio honetan, elkarteak memoria historikoaren transmisioan sakondu gura du. Horretarako, Durangaldeko bi familien bizipenak lehenengo pertsonan azalduko dituzte. Familia bakoitzeko hiru belau-nalditako ordezkariekin berbetan transmisio hori zelan bizi izan duten azalduko dute. Alde batetik, Eulogio Esturo, Idoia Esturo eta Julen Guttadauro izango dira Durangoko antzokian familiako bizipenak kontatzen. Eulogioren aita gudaria izan zen eta kartzelan egon zen urte askoan. Osaba ere errepre-saliatuta egon zen.

Bestetik, Mari Tere Larruzea, Marisa Barrena Larruzea eta Ixone Aroma Barrena ari-tuko dira. Mari Tere Larruzea Pedro Uriguen gudari zornotzarraren lobetako bat da. Iazko maiatzean osabaren gorpuzkiak jaso zituzten Mendatan

'Agurrik gabeak' ekitaldian transmisioaren inguruko bizipenak azalduko dituzte

Durangaldeko bi familiak memoria historikoaren transmisioa zelan bizi izan duten kontatuko dute



Iazko 'Agurrik gabeak' ekitaldiko irudia.

egindako indusketan. Izan ere, 2015eko abuztu amaieran Gerra Zibilean hildako pertsona baten hezur batzuk aurkitu zituzten herri horretako Marmiz auzoan

egiten ari ziren indusketa eta prospekzioetan. Pedro Uriguen gudari zornotzarrarenak izan zitezkeela uste zen. DNA azterketak egin zituzten hori segur-

tatzeko, eta emaitzek susmoa egiaztatu zuten: Pedro Uriguenenak ziren hezurak.

Kristina Mardaras bertsolariak gidatutako ekitaldian, urte-

ro legez, lore eskaintza eta dantzariak ere izango dira. Ander Ertzilla musikari durangarrak ere emanaldia eskainiko du Plateruenean.

Higiezinaren zergako indize altua 0,29an

Iaz 0,335ean ezarri zuen udalak indize altua

DURANGO Markel Onaindia
Higiezinaren zergako indize altua 0,29ra bajatu du Durango-ko Udalak. 2017rako indizeak eztabaida eragin zuen iaz, hiritan lantzeraino. Azkenean, 0,335ean ezarri zuten, balio katastralak 180.000 eurotik gora baloratutako etxeetan. Hala ere, kaltetuak ez ziren gustura geratu eta errekurritu egin zuten.

Indizearen jaitsiera 2018ra-ko ordenantza fiskalen baitan

onartu dute, EAJ eta PSE-EE-ren aldeko botoagaz, eta EH Bilduren abstentzioagaz. %1,5eko igoera orokorra edukiko dute durangarrek zergetan, salbuespen batzuekin. Pilar Rios alkatordeak (PSE-EE) adierazi du zergak ikuspegi sozial batetik lantzen dituztela. EH Bilduren zenbait ekarpen txertatu dituzte, eta horregatik abstentzioa. Ostera, Herriaren Eskubidearenak ez dira onartu.

Migrazioa ikertzeko beka egia bihurtuko da

DURANGO M.O.

XX. mende erdialdean espainiar estatutik etorritako migrazioa ikertzea proposatu du EH Bilduk osoko bilkuran, eta ideia egia bihurtuko da, PP salbu alderdi guztiek babestuta. Pertsonen bizipenak bekaren oinarri izatea gura du oposizioko lehen indarrak, zentro kulturalekin eta auzo elkarteekin elkarlanean.

Orain, udal batzordean lanean hasiko dira, beka zelan arautu erabakitzeko.

Eraso sexista bat egotzita, gizon bat kartzelara

Durangoko jaien harira hiru eraso sexista egin dira publiko; asteon eman dute hirugarrenaren berri

DURANGO Markel Onaindia
Durango jaien bueltan hiru eraso sexista egin ziren publiko, eta jaiak birritan eten ziren, Herritarren Ituneko konpromiso jarraituta. Aste honetan zehar eman dute hirugarren erasoaren berri. Urriaren 14an izan zen, Abadiñoko merkataritza-gune baten inguruetan. Ustezko erasotzailea kartzelara bidali du epaileak. Durangoko

eta Abadiñoko udalek eraso gaitzetsi dute.

Udaltzaina zaurituta

Bestalde, jaietan udaltzain biri eraso egin zieten. Bati bultza egin zion gazte batek, eta buruan kolpea hartuta ospitalera eraman zuten. Udalak udaltzainak babestu ditu, eta udaleko langileen komiteak neurriak hartzea eskatu du.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko urriaren 27a
14. urtea - 695. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza, Nagore Txinturreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Sarrionandiaren bide kulturala, ingurukoen eta artisten ahotik

Biharko ekitaldi nagusian estreinatuko dute Sarrionandiari buruzko dokumentala

IURRETA A. Basauri/M. Onaindia Joseba Sarrionandiari esker ona adierazteko jardunaldiak martxan dira Iurretan. Errezitaldiak, berbaldiak eta musika emanaldiak izan dira azken egunotan, besteak beste. Udalak antolatu du egitaraua, zenbait elkarte eta artisten laguntzagaz. Bihar etorriko da ekitaldi

nagusia: hainbat herritarrek idazlearen testuak errezitatuko dituzte, eta, gainera, *Joseba Sarrionandia, Hemen eta Han* dokumentala estreinatuko dute, Peru Magdalenak eta Pello Salaberriak sortua. 18:30ean hasiko da ekitaldia, Askondon.

Dokumental horren atarian, bertan parte hartu zuten lagun



Jardunaldien baitan, Sarrionandiaren 20 testu herriko hormetan idatzi ditu Peru Magdalenak.

batzuen testigantza jaso gura izan du ANBOTOK. Pedro Mari Urtiaga txikitako laguna, Marisa Barrena irakaslea, Kristina

Mardaras bertsolaria eta Sarrionandiaren lanagaz lotura estua duen Ruper Ordorika dira protagonista horiek. Ga-

raizarkoaren ibilbide kultural bat erakutsiko duen dokumentalean, guztira, 27 bat lagun agertuko dira.



Pedro Urtiaga

Garaizarko umetako laguna



Marisa Barrena

Gau eskolan irakasle izan zuen



Kristina Mardaras

Iurreta, literaturzalea



Ruper Ordorika

Oñati, musikaria

“Bistan zen letren munduko bidea hartuko zuela”

Nola gogoratzen dituzu Garaizarko jolasak?

Ez geneukan ezer, baina oso pozik bizi ginen. Lau familia ginen auzoan eta oso harreman estua genuen. Orduan, Jose Angel, mutiko argia zen eta bistan zen letren munduko bidea hartuko zuela. Zortzi bat urte zituela, kalera joan zen bizitzera familia, eta beste bide bat hartu zuen. Gero, aittitte eta amama bisitatzeraz etortzen ziren.

Bere liburu bat aukeratzekotan?

Akordatzen. Haurtzaroko jolasak eta bizitako une ederrak batzen dira. Liburu hori irakurtzerakoan pasarte batzuetan protagonista nintzen bera-gaz batera.

“Ironia fina eta idazteko gaitasun itzela zuen”

Nolako garaiak izan ziren gau eskolan bizitakoak?

Motibazioa genuen motor, eta euskara berreskuratzea, biziberritzea helburu. Ironia fina eta idazteko gaitasun itzela zuen 16 urteko gaztea zen ‘Sarri’. Laster hasi zen idazten. 1975ean *Durangaldeko ikastolaz* artikulua idatzi zuen Zeruko Argian, lan sakona 17 urteko gazte batentzat. Bihar irakurriko dugu jendaurrean.

Sarrionandiaren obra bat?

Zaila da aukeratzeko, sentimenduak gailentzen zaizkit sarritan: *Ainhoari gutunak* barru-barruan dut eta *Akordatzen* ere berezia da. *Lagun izoztua*, berriz, gogoetarako lan borobila da. Obra itzela da berea. Kolosala.

“Aukera polita da Joseba hobeto ezagutzeko”

Zelan azalduko zenuke Josebaren lana?

Deskubrimendu bat da hain idazle onak bere herriaren inguruan zelan berba egiten duen ikustea, zelan deskribatzen duen. Txikia handi zelan egiten duen. Literaturaz nuen usteari indarra eta bizitasuna eman dizkio. Asko maite dudak idazle bat da.

Errezitaldietan parte hartu duzu, ikasleekin adibidez.

Uste dut beharrezkoa dela Joseba irakurtaraztea. Jardunaldien ideia ona izan da; herritarrek Joseba hobeto ezagutzeko aukera polita dela uste dut, erdaldunengana heltzeko ere bai.

“Bere testuekin, kantua entzun eta ikusi egiten da”

Unibertsitatetik, Pott Bandatik, elkarlanean zaudete.

Lehen diskoan bere poema bat sartu nuen, eta ordurako preso eramane zuten. Geroztik, pentsa zenbat kantu egin ditudan bere testuen gainean. Bion ibilbideak batera joan dira. Erreferentzia bat da eta zerbaitetik hautatzen dute hainbeste musikarik.

Zer du hain berezi izateko?

Bere testuekin, kantua entzun eta ikusi egiten dela esango nuke. Dohain hori poesian ez da askotan gertatzen, derrigorra ez den arren. Liburuen artean, *Izuen gordelekuetan barrena*, adibidez, garrantzitsua izan zen nire bizitzan.



euskal*linge
Design & Business

Magdalena

lenceria

Toallak eta mahai-oihalak

Pistinako bainujantziak
8XL tailara arte

Aholkularitza pertsonalizatua

Denboraldi berria pijama eta batetan emakume eta gizonentzat



Ermodo kalea, 27 - Tel.: 94 402 40 43 - DURANGO

Plazako lokal bat salgai jarriko dute, kafetegi bat jartzeko

Elixalde auzoan dagoen lokalak 140 metro karratuko azalera du



Aita San Migel plaza inguru horretan jendea egotea du helburu egitasmoak, udal aduradunek azaldu dutenez.

IURRETA Aitziber Basauri

Elixalde auzoan 140 metro karratuko azalera duen lokal bat salgai jarriko du Iurretako Udalak, bertan kafetegi bat jartzeko. Gizarte-jarduera sortzea eta Aita San Migel plaza inguru horretan jendea egotea du helburu egitasmoak. Horretarako, adjudikaziodunak jolas eta gizarte erabilerarako ekipamendua jarri beharko du. Hau da, kafetegi edo taberna bat. Lizitazioaren oinarritzko prezioa 118.830 euro da (BEZa kanpo).

Iñaki Totorikaguena alkateak ohar batean azaldu duenez, plaza “erakargarriagoa” izatea lortu gura dute, “giro hobea edukitzea eta herria gehiago kohesionatzea”. Herriarentzat “interesgarria” deritzo kafetegi edo taberna bat egotea bertan, “inguru horretan daude-eta eliza, udaletxea eta pilotalekua”. Gaineratu duenez, “oso hurbil dago hezkuntza-eskaintza guz-

tia, eta oraingoz ez dugu horrelako inolako lokalik bertan. Bestalde, aukera erakargarria iruditzen zaigu inguru historiko, eder eta lasai batean ostalaritza-jarduera bat garatu gura duen edonorentzat”.

Plaza “erakargarriagoa” izatea lortu gura dute eta “herria gehiago kohesionatzea”

Lokalean garatu gura den jarduera-lizentzia eskatzeko gehieneko epea bi urtekoa izango da; jarduera hasteko, berriz, hiru urtekoa. Proiektuak enpresa-eta merkataritza-proiektuen lehia-ketatik onura ateratzeko aukera ere izango du; izan ere, Iurretan enpresa berriak sortzea bultzatzea du horrek helburu. 6.000 euroko saria jaso ahalko lukete.

Labe berria, aluminio zikina berrerabiltzeko

Lakatutako aluminioa aprobetxatzeko labe berria inauguratu du Aludium enpresak

ZORNOTZA J.D.

Aludium aluminioa laminatzen duen Zornotzako enpresa erraldoia da. Orain arte, aluminio garbia zuten langaia, baina, aurrerantzean, aluminio zikina edo lakatutakoa ere transformatzea ahalbidetuko dien labe birakorra inauguratu zuten atzo. Beraz, zerbeza edo freskagarrien latak ere prozesatu ahalko dituzte, besteak beste. Horrek aukera berriak irekiko dizkie eta “energetikoki autonomoagoak” izango dira, Aludiumeko presidente Manuel Ruanok azaldu zuenez.

Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak bis-

taratu zuen labea inauguratzeko plaka. Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkatea eta beste hainbat ordezkari ere batu zituen atzoko bisitak.

Aludium enpresa multinazionala da eta, Zornotzakoaz gainera, beste planta bi ditu. Urtean 300.000 tona prozesatzen dituzte eta gehiena bezeroaren neurrira egindakoa da.

Segurtasuna

Aludiumek askotariko jardunaldiak antolatu ditu, asteon, enpresako segurtasuna indartzeko. Atzo lan istripu baten simulazioa egin zuten, egoera horietan zelan erantzuten den erakusteko.



Arantza Tapia eta Manuel Ruano labe berriaren aurrean.

Zelaietako ikastaroak gaztelaniaz direlako kexak agertu dituzte

Udalak euskarazko eskaintza bermatzeko neurriak hartuko dituela dio



Ametx erakundeak eskaintzen dituen ikastaroak Zelaieta zentroan izaten dira.

ZORNOTZA Joseba Derteano

Zelaieta Zentroan nagusientzat eskaintzen diren ikastaroak gaztelaniaz izaten dira. Hori bertatik bertara egiaztatu dute herritar bik, eta hedabideetara gutuna bidali dute egoera salatzeko. Hizkuntza Eskubideen Behatokiagaz ere hartu-emanetan jarri dira, eta organo honek ere ondorio bera atera du egoera aztertuta.

Umeentzako eskaintza euskaraz, baina helduentzako gaztelaniaz eskaintzen dela dio Behatokiak. Ildo horretatik, aurtengo otsaileko osoko bilkuran onartutako Euskararen Erabilera Normalizatze Planeko eta hizkuntza irizpide berriko atal bat gogora ekarri du Behatokiak. Honela dio

Planeko seigarren puntuak: “Udalak edo erakunde autonomoek antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituzten ikastaroen %50 gutxienez, euskaraz izateko eskubidea dago”.

“Argi dago ez dugula herritarrei aitortu diegun eskubidea bete”, onartu dute udaletik

Udalari gutun bat bidali diote eta erantzuna jaso dute. “Argi dago ez dugula herritarrei aitortu diegun eskubidea bete”, dio Behatokiari bidalitako erantzunak, eta egoera konpontzeko neurriak iragarri dituzte. “Bete

beharen neurriak hartuko ditugu 2018ko urtarrilean, eta gerokeetan egingo diren programazioetan euskarazko eskaintza bermatzeko eta herritarrei aitortu diegun eskubidea betetzeko”, gaineratu dute.

Zornotzako herritarriek hedabideetara bidalitako irizpide gutunean gogor salatu dute gaur egungo egoera. “Berriz ere herritar euskaldunak gaztelaniaz egitera behartzen gaituzte, eta, horrela, beste behin euskaldunoi bigarren mailako izaera ematen digute inplizituki. Euskaraz bizi, lan egin, gozatu edo aisialdia betetzea gure eskubidea da. Eta ez da hautu pribatu bat, zerbitzu publiko bati buruz ari gara”, adierazi dute gutunean.

ELORRIO Maialen Zuazubiskar Elorrioko Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, datozen egunetan gazteak protagonista izango dituen aurrekontu parte-hartzaileen prozesua jarriko du martxan.

“Gazteak dira herri honen etorkizuna. Hori dela-eta, komeni zaigu Elorrio hobe bat eraikitzeko erremintak gutxina-ka-gutxina gazteen eskuetan uztea”, aitortu du Idoia Buruaga alkateak.

Elorrioko Udalak adierazi duenez, datozen egunetan lantzen hasiko diren aurrekontu parte-hartzaileen bidez gazteen ahalduntzean laguntzea izango dute helburu.

Elorrioren, aurten lehen aldiz, Gazteria Diagnostikoa landu du udalak 12 eta 20 urte arteko gazteekin. Bertan, 350 bat gazte parte hartu dute, eta prozesutik ateratako ondorio zein beharri-kanak hurrengo urteetan gauzatzeko joango diren Ekintza Plan batean bildu dituzte.

Datozen asteetatik aurrera, Elorrioko gazteek urte honetan zehar landu den Ekintza Planeko zenbait proiektuen artean beraien ustez lehenengo zeintzuk garatu aukeratu ahalko dutela esan du Buruagak prentsa oharrean.

Gazteak protagonista izango dira aurrekontu parte-hartzaileetan

Elorrioko gazteek Ekintza Planeko proiektuen artean aukeratu ahalko dute



Gazteria Diagnostikoa egin dute Elorrioren, lehen aldiz.

Nola parte hartu?

Elorrioko Udaleko kideek herriko gazte guztiek edo gehienek aurtengo aurrekontu parte-hartzaile hauetan parte hartzea dute helburu. Hori horrela, gazteengana heltzeko gobernu

taldeko kideek hainbat bide erabiliko dituzte.

Lehenik eta behin, udal ordezkariak herriko ikastetxe guztietara joango dira, ikasleei Gazteria Diagnostikoaren ondorioen berri eman eta aurrekon-

tu parte-hartzaileen prozesua azaltzeko asmoz.

Bestalde, herritik kanpo ikasten duten nerabeekin zein 16 eta 20 urte bitarteko gazteekin azaroaren 2rako bilera adostu dutela adierazi dute. Arratsal-

deko seietan udaletxean egingo duten bileran gazteei prozesuaren berri eman eta beraien parte-hartzea bultzatzea izango dute helburu.

Horrez gain, Elorrioko Udalen webgunean gazteen iritzia jasotzeko galdetegi ere eskuragarri jarriko dute. Hala ere, gazteek soilik erantzuteko neurriak hartuko dituztela jakinarazi dute, esaterako. Herriko gazte

Azaroaren 2an udaleko kideek herriko gazteekin bilera egingo dute udaletxean, 18:00etan

bakoitzari gutun bidez pasahitza helaraziko diete. Horrela pasahitz horren bidez webguneko galdetegi erantzuteko aukera izango dute.

Elkartekin bilera

Bestalde, nahiz eta aurrekontu parte-hartzaileak gazteei bideratuta egon, 2018ko aurrekontuetan elkarte bakoitzaren beharrak islatzeko asmoz, zinegotzi bakoitzak bere arloko elkarteekin bilerak egingo dituztela jakitera eman dute.

Perretxikoak batu eta erakusketa egingo dute

OTXANDIO J.D.

Otxandioko mikologia zaleek hitzordu bi dituzte asteburuan. Lehenengo, zapatuan, perretxiko bila elkarregaz joateko deia egin dute Kementsu eta Miru Gain elkarteek. 09:30ean udaletxe aurreko plaza abiatuko dira. Taldean zein nor bere kontura batutako perretxikoak sailkatu egingo dituzte eguerdian. Ondoren, domekan, erakusketa antolatuko dute batutako ale onenekin. Perretxikoak udaletxe azpiko aterpean egingo dira ikusgai eguerdian.

Plan Orokorra osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatuko dute bihar

Aurkezpen saioa zapatuan izango da, 11:00etan, herriguneko frontoian



Aurkezpenaren ostean, herritik ibilbidea egingo dute herri ingurua aztertzeko.

IZURTZA J.D.

Kontrako epai batek behartuta, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko fase denak berriro gauzatu behar ditu udalak. Lehenengo urratsa zapatuan emango dute. 11:00etan herriguneko frontoian hasiko den aurkezpenagaz prozesu parte-hartzailea abiatuko dute.

Plana onartzeko “premia handia” onartuta, prozesu “labur eta parte-hartzailea” proposatzen du udalak, deialdia egiteko diptikoan jaso duenez.

Gainera, ez dira hutsetik hasiko. “Epaia ez du baliogabetzen aurreko analisia, eta dokumentu erreferentetzat izango dugu”.

Herri ingurua aztertzen

Biharko aurkezpenaren planaren gaur egungo egoera eta aurrera begirako kronograma azalduko dituzte. Ondoren, taldeka banatuko dira, diagnostikoa eztabaidatu eta aberasteko. Azkenik, 12:30ean, herritik ibilbidea egingo dute hurbileko eremuak aztertzeko.

Plan berriaren lurren alderdi urbanizatzailea barik, herria bere osotasunean hartu gura dute ardatz. “Herriko balio natural eta sozialekin gehiago bat egingo duen gizarte garapena” bilatzen dute.

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



anboto.org
MUGIKORREAN

Available on the App Store | Google Play



urtxintxa
jostailu denda

Zuengandik gertu

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

A-8ko Gipuzkoako zatian, 45 euroko muga edukiko dute bizkaitarrek

Bizkaian 30 euroko gastu muga dago urte hasieratik; beraz, guztira 75 euro izango lirarteke

DURANGALDEA M. Onaindia
Durangaldetik jende ugari joaten da Gipuzkoara lanera, eta A-8ko bidesarian diru dezentetik utzi behar izaten dute hile amaieran. Bada, urtarriletik aurrera, Gipuzkoako zatia egitearren 45 euro ordainduko dituzte gehienez, aldundi biek lortutako tratuari esker. Bizkaian 30 euroko gastu muga dago urte hasieratik; beraz, guztira 75 euro izango lirarteke hilabete amaieran.

Autobidearen erabiltzaileek sisteman izena eman behar

Erabiltzaileek sisteman izena eman behar dute, Interbiaken bulegoetan edo webgunean

dute, Interbiaken bulegoetan edo webgunean. Dagoeneko Bizkaiko sisteman alta emanda egonez gero, bertan jarraitzeko nahia berretsi behar da soilik. Gidariak OBE edo VIA-T gailua instalatuta eduki behar dute au-



A-8ko bidesariaren aurka protesta ugari egin izan dituzte Durangaldean.

toan; hilea amaitzean, mugaren gainetik ordaindutakoa bueltatuko diete.

“Gaur, Gipuzkoa eta Bizkaia hurbilago gaude eta hori oso ona da guztiontzat”, adierazi zuen Unai Rementeria ahaldun nagusiak joan zen astean egindako aurkezpenean.

“Ekarpenak mespretxatu”
A-8ko bidesariaren harira pro-

testa ugari egon izan dira Durangaldean, eta plataforma bat ere sortuta dago duela bi urtetik.

Hilea amaitzerakoan, mugaren gainetik ordaindutakoa bueltatuko diete

Autobideak doakoa izan behar duela aldarrikatzen dute.

Muga ezartzeko tratua erantzunez, “Aldundiak plataformaren ekarpenak mespretxatu” dituela uste dute plataformakoek. Euregaz batzartzeko eskaera egin eta ez dituztela hartu salatu dute oharrean. Gainera, gogoratu dute 22.000 sinaduraren babesa dituela euren aldarrikapenak.

Astebete falta da Atxondoko eta Otxandioko galdeketetarako

Euskal Herriko 13 herritan egingo dituzte galdeketak azaroaren 5ean



Otxandion talde argazkia atera zuten dinamikaren sustatzaileak.

DURANGALDEA M.Z. / M.O.
Gure Esku Dagok deituta, Atxondoko eta Otxandioko herritarrek Euskal Herriaren etorkizun politikoaz iritzia emateko aukera edukiko dute azaroaren 5ean. Joan zen maiatzaren 7an Durangaldeko beste hainbat herritan egin zen lez, herri bi horien txanda da orain. Euskal Herrian 13 herritan egingo dituzte herri galdeketak astebete barru; tartean, Getxon.

Gure Esku Dagoko kideak egun horretarako prestatzen ari dira, jendea parte hartzerari animatzen eta informatzen. Esate-

rako, herri bietan boto aurreratu emateko aukera eskainiko dute. Atxondon azaroaren 1ean, 2an eta 3an izango da, Gure Esku Dago dinamikaren lokalean, 19:00etatik 21:00etara. Otxandion, oster, biharko ipini dute eguna, 18:00etatik 21:00etara, Artekalen duten egoitzan.

Asteburuko ekintzak
Azaroaren 5eko galdeketaren aurretik Gure Esku Dago Eguna antolatu dute atxondarrek, domeka honetarako. Goizean, Asuntze Mendi taldearen laguntzagaz, mendi martxa fami-

liarra egingo dute. Ostean, herrian trikipotea egingo dutela eta egunari herri bazkari batez emango diotela jarraipena jakitera eman dute antolatzaileek. Arratsalderako, bingoa eta umeen moto lasterketa ere iragarri dituzte.

Otxandion, berbaldu bi egongo dira asteburu honetan. Gaur, 19:00etan, Josune Gorospe EAJko kideak berba egingo du kultur etxean, eta bihar, ordu berean, Gure Esku Dagoko bozeramaile Anjel Oiarbidek eta EH Bilduko Miren Larrionek hartuko dute hitza, gimnasioan.

Errigorako kanpaina berria martxan dago

Azaroaren 14ra arte egin ahalko da eskaera

DURANGALDEA M. O.
Nafarroako ekoizleei eta euskarari bultzada eman gura dien ekimenak, Errigorak, udazkeneko kanpaina aurkeztu du. Gabon bueltarako ederto datozen kutxa bi eskaini dituzte, eta azaroaren 14ra arte egongo da eskaera egiteko aukera.

www.errigora.eus webgunean eskatu ahalko da, eta herritan hainbat lekutan ere bai. Izan ere, auzolana du oinarri. Abadiñon, Elorrion, Durangon, Iurretan, Mallabian, Otxandion, Zaldibarren eta Zornotzan egongo dira eskaerak egiteko eta gero kutxak jasotzeko tokiak. Guztira, 24 lekutik gora. Horien berri webgunean jaso

daiteke, eta herritan ekimena laguntzen dutenek ere informatuko dute. Ardoa, zainzuriak, orburuak, pastak, piperrak, olioia eta aran-marmelada egongo dira kutxetan, besteak beste.

Jasotzen den diruaren zati bat Nafarroa hegoaldeko nekazariei emango diete, eta beste bat euskalgintza laguntzeko izango da.

Orburuak, pastak, piperrak, olioia eta aran-marmelada egongo dira, besteak beste



Errigorak hainbat boluntario ditu herririk herri.

Gaztetxearen 19. urteurreneko ospakizunak, asteburuan ere

Asteon hasi dute urteurreneko egitaraua; asteburuan hainbat ekintza dago

ABADIÑO M. Z. / I. E.

Urriaren 23an, astelehen honetan, 19 urte bete dira Abadiñoako Gaztetxeak bere bidea hasi zuenetik, eta astelehenean bertan ekin zieten Gaztetxearen urteurreneko ospakizunei. Auzoko ume dantzarien emanaldia

eta txupinazoa egin zituzten, astelehen arratsaldean, ospakizunei ekiteko. Asteon zehar ere hainbat ekintza burutu dituzte Abadiñoako Gaztetxean, eta aste osoan, 17:00etatik aurrera, zabalik egon da bertaratu gura izan duten guztientzat. Martitze-

Urriaren 23an, astelehen honetan, 19 urte bete dira Abadiñoako Gaztetxeak bere bidea hasi zuenetik

nean *El Experimento* filmaren emanaldia egin zuten, eta pintxo potea egunean.

Gaur arratsalderako eta astebururako ere askotariko ekintzak antolatu dituzte 19. urtebetzearen ospakizunei lotuta. Gaur, umeentzako txokolatada eta jolasak izango dituzte arratsaldean, eta Pelax bakarlararen kontzertua, 21:00etan.

Azken urteurrenetan bezala, bizikleta martxa egingo dute, bihar goizean. 11:00etan Gaztetxetik aterako dira bizikleta martxako parte-hartzaileak. On-

doren, 14:30ean, bazkaria izango dute, eta arratsaldean, jolasak. Gauerako, berriz, kontzertuak antolatu dituzte.

Urteurren egitaraua borobiltzeko, domekan, Nerea Arizna-barretaren *Bas herria* antzezlan-a izango da ikusgai.

Azken urteetan bezala, bizikleta martxa egingo dute, bihar, Gaztetxearen urtebetetzea ospatzeko



Dantzariak emanaldia eskaini zuten Gaztetxe aurrean.



Familia argazkia egin zuten, astelehenean, Gaztetxeak 19 urte bete zituen egunean.

Lantziegoko "senideak" bisitan etorriko dira azaroaren 4an

Garai eta Lantziegoko herriak ofizialki senide dira 2013az geroztik



Iaz garaitarrak joan ziren Lantziegora bisitan.

GARAI Markel Onaindia

2013az geroztik senide dira Garai eta Lantziego (Araba). Dantza taldeen bitartez sortu zen herritarren arteko hartu-ema duela 30 bat urte, elkartruke bat egin zutenean, eta hainbat bider errepikatu zuten. Azkenean, konexio hori ofizialtzea erabaki zuten udal biek 2013an. Alkateek hitzarmena sinatu zuten, eta oroigarria ere ezarri zuten herrian. Orain, kasik urtero egiten dute senidetza ospatzeko jaialdia, garaitarrak hara joanda edo lantziegoarrak hona etorrita. Aurten, "senide" arabarrak izango dira bisitari Garain, azaroaren 4an.

11:30 bueltan egingo diete harra Lantziegoko herritarrei. Autobus bete etortzea espero du-

te antolatzaileek. 14:30ean bazkaria egingo dute pilotalekuan; 16 euro balio du eta udaletxean eman behar da izena urriaren 30a baino lehen. Bazkalostean, musika jartzaile batek alaituko du giroa.

Bazkaria egingo dute pilotalekuan; 16 euro balio du eta udaletxean eman behar da izena

Nagusien ikastaroa

Herriko nagusientzat antsietatea kontrolatzeko tailerra sortu du Amankomunazgoak. Azaroaren 2an eta 9an dira hurrengo saioak, 17:30ean, kultur etxean.

DIAGNOSI-PROBAK:

Ekografiak / Mamografiak / Fluxumetriak / Ortopantomografiak / Dentsitometriak / RX Erradiologia / Garezureko telerradiografia lateralak /

Sedazio bidezko gastroskopiak / Sedazio bidezko kolonoskopiak /

zkurdi
osasan zentroa-centro médico

Askatasun etorbidea, 23 - DURANGO / Tel.: 946 816 450 - 946 818 181

www.centromedicoezkurdi.com

Ardoari laguntzeko, tabernariak pintxoak prestatuko dituzte

Zapatuan probalekuan egingo duten Ardo Azokako nobedadea da



Iazko lehenengo aldiagaz gustura geratu ziren eta aurten ekimena errepikatzea erabaki dute.

MALLABIA Joseba Derteano Asteburuan ospatuko dituzten Urriko Jaien barruan Ardo Azoka egingo dute zapatuan. Iazko lehenengo aldiagaz gustura geratu ziren antolatzaileak eta aurten errepikatzea erabaki dute. Edariari laguntzeko, janaria ere egongo dela da aurtengo nobedadea. Herriko tabernari eta jatetxeek prestatutako pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Ardo Azoka probalekuan antolatuko dute, 12:00etatik 17:00etara, baina pintxoaren pos-

tuak kanpoaldean jarriko dituzte espazioa hobeto aprobetxatzeko. Barruan, Ardosaltsanen eta Mallabiko Udalaren artean antolatutako azokan sei postu egongo dira, besteak beste Lau-na eta Norzagarai bodegekina. Ardo da protagonista nagusia (Errioxa, Duero aldea...), baina txakolina (Urkizahar, Getariako jatorri-deituragaz), Cava (Brut Nature...) eta Vermoutha (Petroni Rojo) probatzeko aukera ere izango du bost euroko sarre-
ra ordaintzen duenak.

Kontzertuak gaur eta bihar Urriko Jaiak gaur arratsaldean hasiko dira. 19:00etan Elizpeko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte, eta, ostean, labeldun oilasko pintxoak jateko aukera egongo da plazan. 20:30etik aurrera Rock Bothers Duo taldeak eta DJ Txurruk zuzenekoak eskainiko dituzte.

Zapatuan, 11:00etan, umeentzako duatloia antolatu du guraso elkarteak. 22:00etan Hesian, Skakeitan eta Trikiotzian taldeen kontzertua hasiko da.

Kaleratzeak salatu dituzte Laitek enpresan

Langileek greba hasi zuten irailaren 18an

MALLABIA J. D. Alcorta Forging Group taldeak injektore bat egiteko azpikontratatu zuen Mugape enpresa, eta honek beren-beregi horretarako sortutako Laitek enpresa azpikontratatu zuen. Mugaperen enpresa hori bere instalazioetan eta ekipamenduak dabil, "baina bestelako lan-baldintzekin, enpresa biek elkarregaz zerikusirik ez dutelakoan", salatu dute irailaren 18an greba hasi zuten langileek ohar batean.

Langileen erreklamazioek ez zuten erantzunik jaso eta, gainera, "bi langile kaleratu"

zituzten "diziplina arrazoiak" erabilita eta "inongo azalpenik eman gabe", langileen esanetan. Langileek batzarra eskatu zioten zuzendaritzari, baina ez zutela erantzunik jaso diote. Ondorioz, grebalariek Mugapeko langileei gutun bat idatzi zieten egoeraren berri emateko. Egun horretan bertan Laitekeko kudeatzaileak "zazpi grebalarikaleratuta" zeudela esan zien, Mugaperen eta Laiteken arteko kontratua deuseztatu zelako.

Euren nahia "inori kalterik egin gabe egoera ahalik eta arinen konpontzea eta lanpostura itzultzea" dela adierazi dute.



Laitek enpresako langileek greba egiten hasi ziren irailaren 18an.

Autodefentsa feminista tailerra eskainiko dute

Azaroaren 3an eta 4an egingo dituzte saioak

ZALDIBAR I. E. Azaroaren 3an (16:00etatik 20:00etara) eta 4an (10:00etatik 14:00etan) egingo duten autodefentsa feministako tailerrean izena emateko epea hasi du Zaldibarko Udalak. Azaroaren 1era arte udaletxean, liburutegian edo berdintasuna@zaldibar.eus helbidean eman daiteke izena.

Emakumeen ahalduntzerako orain arte egin dituzten saioetan bezala, izena ematen duten emakumeek aurrez eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.

Emagin elkarteak bideratuko du autodefentsa feminista ikastaroa, eta izena ematen duten emakumeei tailerreko egu-

netan arropa eroso eta estera bat eramateko eskatu diete.

Ahalduntze tailerren bidez, udalak askotariko gaiak lantzerako gonbidatu ditu Zaldibarko emakumeak azken hilabeteotan: ekonomia feministari, erotismoari, autoezagutzari eta maitasun erromantikoari buruz jardun dira, esaterako.

Azaroaren 1era arte udaletxean, liburutegian edo Berdintasun Sailera idatzita apuntatu daiteke

Mañariko haitzulo eta paisaia lekuak bisitatuko dituzte

MAÑARIA J.D. Gerediaga elkarteak antolatutako Ondare Jardunaldiak asteburu honetan amaituko dira, Mañariko eta Berrizko irteera banagaz. Mañariko herriko bizitza eta ekonomia baldintzatu dituzten paisaiek hartuko dute garrantzia zapatuko ibilbidean. Herriko ekonomian eragin nabarmena izan duten harrobi eta zurgindegiak, eta herriko historiaren parte diren

kobazuloak ezagutzeko aukera izango da. 11:00etan euskarazko ibilbidea hasiko dute, eta 17:00etan, gaztelaniazkoa. Ostean, 19:30ean, Yoann Tardivel Erchoff organista belgikarrak kontzertua eskainiko du Mañariko elizan.

Berrizko Besoitaormaetxea baserrian egindako arkeologia lanei eta ikerketeei esker, XII. mendetik gure garaira arte egon diren paisaiei errepaso egingo diete. Era berean, Andikoako santutegira ere joango dira. Kasu honetan ere euskarazko eta gaztelaniazko irteera bana egingo dute.

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Eitua Industr., 66 BERRIZ Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO Tel.: 946 811 737
Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan
Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Berrizko aparkaleku berriak 19 ibilgailurentzat izango du tokia

Urte amaierarako bukatuko dituzte Iturritzako berrurbanizazio lanak



Iturritza kaleko berrurbanizazioaren bigarren fasea egiten dabilta.

BERRIZ M. Zuazubiskar
Iturritza kaleko berrurbanizazioaren bigarren fasea urte amaie-

rarako amaituko dutela jakitera eman du, asteon, Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Abuztuaz geroztik, Iturritza eta Bidegain kaleen artean 19 ibilgailurentzako tokia izango

duen aparkalekua egiten dabilta. “Gune berri honeguz, Matza eta Berrizbeitia auzoen inguruan dagoen aparkalekuen arazoa konpontzea gura dugu”, esan du alkateak.

Bestalde, 220.000 euroko aurrekontua duten obra hauekin, Iturritza Kaleko zenbait atari eta denden irisgarritasuna ere hobetuko dutela eta kale horretan dagoen autobus geltokia metro gutxi batzuk gorago jarriko dutela jakitera eman du alkateak. “Autobus geltoki berrian, orain ez bezala, markesina egongo da, eta, gainera, garajeetatik irteten diren autoek errepidea hobeto ikusi ahal izango dute”, gaineratu du Isoirdek.

Horrez gain, dagoeneko zenbait garajeren sarbideak ere hobetu dituztela jakitera eman du alkateak.

Isoiden hitzetan, berrurbanizazio honen helburu nagusia Berrizko herrigunea berritzea da. “Irisgarritasun egokia helburu dugula, herrigunea gutxinaka-gutxinaka hobetzen joatea da gure asmoa”, bukatu du Orlan Isoird alkateak.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ BAZTERRA
EAJ



Befiko kontua

Zientzien munduan badago nazioarteko sistema metriko bat zeinaren bitartez gauzak neurtzerakoan erraztasuna eta ulergarritasuna lortzen diren. Ondo legoke politikaren munduan ere halako sistemaren bat eratzea, ekintzen neurketa edo metodologia guztiontzat berdina izateko. Egun demokrazia batean bizi gara, ez enbudokrazia batean non norberarentzat dena balio duen baina aurrekoarentzat ez.

Kataluniari dagokionez, badirudi konstituzioko 155. artikulua abian dela. Ze pena gauzak neurtzeko sistema egokia ez dagoela, zeren artikulua hori abian jartzea legezkoa bada, legezkoa izan beharko litzateke ere konstituzioaren gainontzeko artikulua abian jartzea eta bete izatea.

Hain larria al da pertsonen bere etorkizuna zein den erabakitze eskubidea izatea? Giza eskubideen inguruan hainbeste hitz egin eta gero, zergatik ez da betetzen norberak zer izan nahi duen erabakitze eskubidea? Estatu espainoleko mugetatik haratago joanda ondo asko neurtzen da modu egokian preso politikoak daudela edota diktadura bat ezarrita dagoela. Ondo asko esaten da mugetatik at batzuek askatasuna merezi dutela.

Baina mugak igaro eta beraien etxean sartuta daudela neurtzeko sistema aldatu eta giza eskubideak eta konstituzioaren hainbat artikulua papatik bidaltzen dituzte inolako lotsarik gabe. Ez naiz aspertuko esaten noren esku dagoen zer izan nahi dugun. Gure esku dago, euskalduna naiz eta halan bizi gure dot eta entzun: Gure esku dago!

Arimen gaua ospatuko dute Berrizen, 28an

BERRIZ M. Z.
Azken urteotan lez, eta XX. mende hasierako ohiturari eutsiz, urriaren 28an Arimen Gaua ospatuko dute Berrizen.

Berrizko Udalak, Pagotxa Kultura eta Aisialdi elkarteagaz batera, kalabazak apaintzeko lehiaketa antolatu du Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako gazteentzat.

Bestalde, makillaje eta moztiro tailerrak ere antolatu dituztela jakitera eman dute. Ekintza guztiak Olakueta plazan izango dira, 17:15etik 19:30era.

Urriko azken astelehenean, txangoa Gernikara

ATXONDO M.Z.
Anbotoko Dama Nagusien Elkarteak irteera antolatu du urriaren 30erako. Antolatzaileek jakitera eman dutenez,

goizean Gernikako azoka bisitatuko dute, eta eguerdirako Lekeitiora joango dira. Bertan bazkaldu eta arratsaldea pasatuko dute.

Bestalde, autobusa 9:40an Axpetik irtengo dela, eta Arrazolatik eta Atxondotik ere igararako dela jakitera eman dute. Izena eman gura duenak 627 661 065 telefonora deitu behar du.

DURANGALDEA ASTEON

Iraunkor kontsumo taldearen batzar irekia

ZORNOTZA > Tokiko kontsumoa eta ekoizpena bultzatzen dabiren Iraunkor kontsumo taldeak batzar irekia antolatu du gaur arratsalderako. Taldeko kideek adierazi dutenez, 19:00etan hasiko den batzarraren helburua zornotzarrei dinamika azaldu eta denen artean kontsumo taldea eraikitzea da.

Bertso-triki poteoan batuko dira, hilaren 31n

ZORNOTZA > Zitada Guneak antolatuta, urriaren 31n bertso-triki poteoa egingo dute Zornotzan. Poteoa Tomasa tabernatik hasiko da, 19:00etan, eta Oihana Bartra eta Beñat Ugartetxea bertsolariak arituko dira. Zitada Guneako kideek sare sozialetan jakinarazi dutenez, ekimena arimen gaua ospatzeko izango da.

Durangoko 51. Umeen Euskal Jaia, domekan

DURANGO > Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek 51. Umeen Euskal Jaia antolatu dute domekarako. 450 ume inguru batuko dituen ekitaldia 11:30ean hasiko da, kalejira batez. Alardea, berriz, 17:00etan izango da, Ezkurdiko plazan. Aurtengo edizioan, eskualdeko hamar talde arituko dira.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Poza, trabak gaintuz

Joan zen eguen gauean Haitz etorri zen mundura, Aitziber Coello eta Asier Aginako presoen umea, senideok pozez bete gaituena. Ama eta umea ondo daude, eta lehen baino baldintza hobekitu dituzte Aitziberrek, isolamendutik irten baita. Egun pozgarri hauetan, ezin ditugu isildu ospitalean bizitako trabak zein informazio falta. Aitziber une askotan bakarrik egon da, batez ere gauez. Umea zesaraz eduki duela gehitu behar zaio, gainera. Une oro alboan behar gintuen.

Alacantera bidean, hainbat bider deitu genuen zelan zegoen jakiteko, eta ez ziguten ezer esan. 8 ordu luze heldu arte. Erditze gelako txirrina jotzean, ez ziguten ezer esan. Gero, gelan, polizia ez zigun sartzen utzi. Ez genekien zelan joan zen erditzea, zelan zeuden biak, zesaraz izan zela... Geroago, 04:00etan, polizia minutu batez sar-

tzen utzi zion Nekeneri. Minutu bakar batez. Barikuan, hasieran, ospitalean zegoen bitartean inork ezingo zuela ikusi esan ziguten. Abokatuei deitu eta gero, ikusi ahal izan genuen, banaka. Asier ere eraman zuten bisitan; hasieran ordubetez ikusteko, azkenean hoge minutuz. Zapatu arratsaldean, emakumeok ezingo genuela sartu esan ziguten, katxeatzeko neskarik ez zegoelako. Aitziberren lehen-gusinarekin bikotekidea sartu ahal izan zen bakarrik. Orokorrean, egunotan, mediku eta erizainen tratua ona izan da.

Senideontzat, Haitz jaiotza izana emozio leherketa bat izan da, itzela! Eskerrak eman gura dizkiegu babesa erakutsi diguten guztiei. Aitziber eta Haitz 2 urte eta 7 hile barru etorriko dira etxera; Asier 3 hile lehenago irtengo da. Euskal presoak etxera ekarri behar ditugu, senideon kilometro basakeria eta horrelako injustiziak amaitzeko.



Alaine Garmendia Otxoantesana | Mondragon Unibertsitatean irakasle-ikertzailea | Durango, 1991

“Zenbat eta lan ingurune aberatsagoa, orduan eta handiagoa da konpromisoa”

Lehiakorrigo izateko, pertsonen kudeaketan nola eragin laguntzeko erreminta da Bateratzen



> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Pertsonen kudeaketa arloan eragiteko sortu zen Bateratzen, orain bederatzi urte. Pertsonak dira enpresek dituzten aktibo preziatuena eta adimen hori kudeatu behar dute lehiakor izateko. Langileen konpromiso eta inplikazio mailak emaitza ekonomikoetan nola eragiten duen ikertzen ari da Alaine Garmendia bere tesian.

Nola lagundu dezake Bateratzenek pertsonen kudeaketa arloan?

Arlo honetan hartzen diren erabaki asko usteetan oinarrituta hartzen dira, eta Bateratzenen bitartez ebidentziak jaso gura ditugu, ikusteko nolako eragina izan dezakeen palanka bati edo besteari eragiteak, pertsonen kudeaketari dagokionez. Egoeraren argazki bat ematen diogu enpresa edo elkarteri lehenengo diagnosi batean, inkestak batzuen bidez jasotako emaitza kuantitatiboak aztertuz. Odol analisi batean lez, asterisikoak identifikatuko ditugu. Bere sektorearekiko duen kokapena ere

“**Aktibo preziatuena dira langileak, eta adimen hori kudeatu behar du enpresak**”

emango diogu. Ondoren, ikuspuntu orokor batetik, analisi kualitatibo sakonagoa egiten dugu. Interbentzioa da azken pausoa. Hala ere, kasuan kasu ikusiko da zertan eragin.

Zein mailatan eragiten du pertsonen kudeaketak enpresaren errentagarritasunean?

Oso lehiakorra eta aldakorra da enpresa mundua, eta enpresek aurrera begira jasagarria izango den abantaila lehiakor bat behar dute. Hori pertsonengan dago, hainbat ikerketa eta korronteren arabera: langileak lanagaz zenbat eta konprometituago edo inplikatuago egon, orduan eta errentagarritasun

altuagoa lortuko dugu. Aktibo preziatuena dira langileak, euren egiten dute bereizgarri, eta adimen hori kudeatu behar du enpresak. Horretan inbertitu behar da lehiakor izateko.

Horretaz jabe dira enpresak?

Modu inkontzientean bada ere, denok gara jabe. Baina enpresak langile inplikatuagoak gura baditu, beste betaurreko batzuekin begiratu behar du kudeaketa. Pertsonen lan ingurune aberatsa behar dute: erabakiak hartzeko boterea, eta akatsak egiteko eta horietatik ikasteko baimena behar dute. Lanpostua ondo garatzeko formakuntza eta enpresari buruz informazioa ere bai. Horrek langileen konfiantza izatea eskatzen du. Kudeaketa tradizionalan argi dugu nork hartzen dituen erabakiak, zuzendariak edo kudeatzaileak, eta beti horrela izan denean kosta egiten da delegatzea, konfiantza ematea.

Nola eragin dezake enpresak langilearen lan ingurunean?

Lau palankari eragin behar die-

te zuzendari eta kudeatzaileek: autonomiari, kudeaketaren inguruko erabakiak hartzeko gaitasunari, informazioari eta formakuntzari. Hor eraginda, lan ingurunea aberatsagoa izango da eta pertsonaren motibazioan eragingo du. Baita konpromiso maila horrek enpresaren errentagarritasunean ere. Horretarako erreminta da Bateratzen.

Enpresaren tamainak badu eraginik?

Bai. Enpresa zenbat eta handiagoa izan, gaitasun ekonomiko handiagoa da pertsonen kudeaketagaz lotutako hainbat ekimen jartzeko. Baina, aldi berean, tratu pertsonala, familia-pertzepzioa, eta informazio eta komunazio kanalak zailtzen ditu. Kudeaketa zailagoa da. 100-125 langiletik gora dituzten enpresetan hobetu daitezkeen balioak ikusi ditugu: ez dute sentitzen bereziak direla, ez dira baloratuak sentitzen. Oro har, konpromiso eta asebetetze maila altuagoa da txikiengan, lan ingurunea aberatsagoa delako; errazagoa ere bada.

Sektorearen arabera desberdina da argazkia?

Industria, zerbitzuak, banaketa eta hezkuntza. Sektore horietan diharduten enpresek lan egiten dugu momentuz, eta bakoitzak bere errealitatea du. Bi erpinak lirateke industria eta hezkuntza. Industrian lan errepikakorrak, lan pobreak ikusten dira gehiago. Hezkuntzan, berriz, lan aberatsagoak, balio erantsia dutenak. Horrek eragin zuzena du. Egoera oso desberdinak ikusi ditugu, baina patroia bat mantentzen da: zenbat eta lan ingurune aberatsagoa izan, orduan eta handiagoa da konpromisoa eta inplikazioa.

Enpresaren estrategiagaz lerrokatuta egotea behar da?

Traineru bat irudikatzen badugu, adibidez, kide guztiek norabide berean arraun egitea ezinbestekoa da. Baina enpresa tipologiaren arabera ere bada. Oro har, langileek portaera eraikitzailea dutenean, strategiagaz lerrokatuta daudela esan daiteke. Baina automotzio muntaia kate batean, adibidez, jarrera pasiboa izatea izan daiteke lerrokatuta egotea.

Zein da gaur egungo argazkia?

500 bat enpresatako —70.000 bat pertsona— datuak ditugu, eta %50ean enpresaren strategiagaz lerrokatuta daude langileak. Besteetan potentzial lehiakorra galtzen ari dira. Gipuzkoako Aldundiak finantzatutako proiektua izanik, batez ere Gipuzkoako argazkia dugu. Baina Bizkaia, Araba, Espainia eta Europako enpresak ere badaude. Asmoa da Euskal Herrira, Espainiar Estatura eta Europara hedatzea. Administrazio publikoan lan egitea interesgarria litzateke gainera. Bateratzen hedatzeko saioa egingo da azaroren 21ean, Mondragon Unibertsitateko Galarretako kanpusean; izena ematea zabalik dago.

Tesirako konpromiso eta inplikazio mailak emaitza ekonomikoetan duen eragina aztertzen ari zara. Nola doa?

Zenbat eta langile konprometituagoak izan, altuagoak dira produktibitatea eta errentagarritasuna. Hala ere, inplikazio maila oso baxua da produktibitate altuko enpresetan. Noranzko biko erlazioa da konpromisoaren eta errentagarritasunaren artekoa. Denboran neurtutako balioak behar ditugu kasu bakoitzean kausa edo efektua zehazteko. Horretan gabilta.



Leo Simoes jaialdiko zuzendaria, Ros Boisier argazkilaria eta Garazi Arrizabalaga Durangoko Museoko koordinatzailea.



Jon Gorospe gasteiztarraren lana Kuruzesantu Museoan dago ikusgai.



Jon Gorosperen erakusketaren irekieragaz hasi da Begira Photo

Aurten Durangotik eta eskualdetik kanpo ere zabalduko da jaialdia; Zarautzera eta Bilbora

> ARGAZKIGINTZA I. E.

Atzo Durangoko Kuruzesantu Museoan zabaldu zuten erakusketagaz abiatuko dute Begira Photo jaialdiaren zazpigarren edizioa. Jaialdi horrek aurten lehenengoz antolatu duen argazki lehiaketaren irabazlearen, Jon Gorospe gasteiztarraren, *N. Mountains* bilduma azaroaren 18ra arte egongo da Kuruzesantun ikusgai. Museo horretan

aurkeztu zuten, martitzenean, Begira Photoren zazpigarren edizioak dakarren eskaintza. Leo Simoes jaialdiko zuzendariak, Ros Boisier argazkilaria eta Garazi Arrizabalaga Durangoko Museoko arduradunak eman zuten jaialdiari buruzko informazioa.

Aurten mendia da Durangoko jaialdiaren gaia eta, aurreko edizioetan bezala, gai horri eta

argazkilaritza garaikideari loturiko askotariko ekimenak ekarriko ditu Durangaldera eta inguruetara; erakusketak, berbaldiak eta topaketak izango dira, besteak beste.

Iaz hasitako bidean jarraituz, Durangotik kanpo ere izango dira Begira Photo jaialdiko ekintzak datozen asteetan, Iurretan eta Zornotzan. Iurretako Askondo kaleko karpan, adibidez, *Tontorrera iristea* erakusketa kolektiboa ipiniko dute ikusgai; eta Davide Maria Ferrari, Carla Andrade, Moreno & Grau eta Martin Ruedaren argazkiak biltzen dituen *Gailurrak*, Zornotzako Zelaieta zentroan.

Zarautz-Bilbo

Leo Simoes jaialdiko zuzendariak azaldu duenez, aurten lehenengoz, Zarauzko Photomuseumera eta BilbaoArte Fundaziora ere zabalduko da Begira Photo. *Paisaiaren eraikuntza*

erakusketa ipiniko dute Zarautzen ikusgai, eta Sema D'Acosta eta Txema Salvans argazkilariek berbaldiak eskainiko dituzte BilbaoArten.

Leo Simoesek martitzeneko prentsaurrekoan esan zuenez, bestalde, Begira Photoren ba-

Iurretako Askondo kaleko karpan 'Tontorrera iritsi' erakusketa kolektiboa atonduko dute

rruan bi argitalpen kaleratuko dituzte aurten: batetik, jaialdiko partaideek idatziriko hainbat testu bilduko dituen Begira Photo Magazin aldizkariaren lehenengo alea kaleratuko dute. Bestetik, aurten lehenengoz antolatu duten argazkigintzari buruzko saiakera lehiaketa irabazi duen Alejandro León Can-

nock perutarraren *El devenir imagen del mundo. Anotaciones sobre la revolución fotográfica* testua ere kaleratuko dute, jaialdiko egunetan banatzeko.

Boisier, argazki liburuez

Begira Photo jaialdiaren martitzeneko aurkezpenean Ros Boisier argazkilaria txiletarrak ere parte hartu zuen. Izan ere, narratiba fotografikoari buruzko hitzaldi bat eskainiko du Boisierrek Durangoko jaialdiaren barruan. Azaroaren 2an, 19:00etan, *Argazki-liburuak: argazkien bidez kontatzea* hitzaldia eskainiko du BilbaoArten. 2015ean *Pérdida* argazki liburua argitaratu zuen txiletarrak, eta egun argazki liburuen inguruko ikerketa bat egiten eta editore lanetan dabil. Askotarikoa da dakarren eskaintza, eta www.begiraphoto.com webgunean dago ikusgai programazio osoa.

> MUSIKA I. E.

Urriaren 31n, Ara Malikianen kontzertuagaz hasiko da Durangoko XXVIII. Musika Hamabostaldia. Donostiako Orfeoien emanaldia eta Valentin Zubiaurerraren *Ecos de Oiz* obrari buruzko kontzertu-hitzaldi bat ere jasotzen ditu programazioak. Aitziber Irigoras Durangoko alkateak zein Alfredo Sanz Hamabostaldiaren antolatzaileak adierazi dutenez, egitaraua osatzerakoan, "kalitate goreneko musika herritar guztiei zabaltzea" izan dute helburu.

1.060 entzuleren aurrean

Hamabostaldia zabalduz, urriaren 31n, 21:30ean, joko du Ara Malikian biolinistak Landako Gunean. Sarrera guztiak saldu dituzte jada, eta 1.060 entzuleren aurrean arituko da armeniarra. Musika klasikotik haratago,

popagaz edo rockagaz ere hartu-eman du Malikianek, eta hirugarrenez dator Durangora.

Azaroaren 5ean, 19:00etan, Donostiako Orfeoia arituko da Andra Maria elizan. Arandoño Elkartegaz antolatu du hitzordu hori Hamabostaldiak, eta Gerardo Rifón organo-jotzailea ere gonbidatu dute.

Nerea Aizpuruaren lana

Nere Aizpurua biolontxelo-jotzaile durangarrak Musikeneko ikasketen gradu amaieran aurkeztu zuen lana eszenaratuko dute Hamabostaldian. Bestalde, Valentin Zubiaurre musikari garaitarrak sortutako *Ecos de Oiz* obraren inguruko hitzaldi-kontzertua eskainiko dute Nerea Aizpuruak, Arrate Monasteriok, Mainer Lopezek eta Ander Berrojalbizek, azaroaren 12an, 19:00etan, San Frantzisko elizan.

Ara Malikian mila lagunetik gorako entzuleriaren aurrean arituko da

Urriaren 31n, Durangoko Hamabostaldiaren barruan joko du Malikianek



Hirugarren aldiz joko du Ara Malikian musikari armeniarrek Durangon.

'Apustua' eta 'Hozkailua' antzerki obrak, gaur eta bihar, Berrizen

Berrizko antzerkigileek parte hartzen dute 'Apustua' eta 'Hozkailua' obretan

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Berrizko Kultur Etxean eskaintza bikoitza daukate antzerkizaleek, gaur eta bihar. Berrizko sortzaileak tartean dituzten bi proposamen dira, gainera, Kultur Etxeko programazioak gaurko eta biharko jasotzen dituenak. Gaur, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxean *Apustua* eskainiko du Txintxaun kolektibo taldeak, bigarren bez.

Publiko familiarrari zuzenduriko antzezlan da Txintxaun Berrizko taldearena, Fernando Torrecillak idatzitako ipuinaren antzerkirako moldaketa. 1963an Berrizen jazotako egiazko istorio bitxi bat dago Torrecillak idatzitako ipuinaren zein Txintxaunek landutako antzezlanaren oinarrian: Berrizko probalekuan idien kontra aritzeko zirkutik ekarri zuten Mary elefantearen istorioa.



Maite eta Karlos lagunak dira 'Hozkailua' obrako protagonistak.

Berrizen bizi den Ander Lipusek eta Patricia Urrutia aktoreak *Hozkailua* eskainiko dute, Berrizen, bihar, 22:00etan. Unai Iturriaga durangarraren testua

dauka Huts Teatro taldearen antzezlan horrek. Jimmy gaztetako laguna hil zaien Maite eta Karlos dira *Hozkailua* antzezlaneko protagonistak.

Azaroaren 3an eta 4an egingo dute 24 Ordu Digitalean

> ZINEMA I. E.

Azaroaren 3an eta 4an egingo dute Arriola antzokiak antolatzen duen 24 Ordu Digitalean Film Laburren lehiaketa, Elorrion. Hamabigarren edizioa izango da hurrengo asteburuko hori. Azaroaren 3an, 17:00etan, Arriolako antolatzaileek ematen dizkieten gaiak oinarri hartuta, 24 orduan film labur bat pentsatu, grabatu eta editatu beharko dute parte-hartzaileek.

Azaroaren 3tik 4ra bitartean Elorrion sortutako pelikula horiek, azaroaren 4an 22:00etan egingo duten emanaldian ikusi ahal izango dituzte bertaratzen direnek. Emanaldi horren ostean, hiru sari emango dizkiete lehiaketako irabazleei.

Parte hartzeko, 24ordu@arriolaka.eus helbidean eman behar da izena.

GEURE DURANGALDEA

MARTIN LOIZATE SARRIONANDIA

Ikaslea



Umorea berriz jo puntuan

Kataluniako komunikabide publikoak deuseztatuko ditu 155,78 artikulua, Gobernua- ren zerbitzura jarritz. Esku hartze horri bidea zabaltzen ibili dira batzuk: umeentzako kanalak adoktrinatu, irratiek biolentzia bultzatu, albistegiek propaganda independentista egin... Horien artean kokatu dute satira politikoa egiten duen *Polonia*.

Baten bati ez zitzaion baten gustatu programak 9N-ren ostean eginiko *Hondoratzea* filmaren parodia, non Hitler agertzen den (kasu honetan Rajoy) territorioaren mapa begien parean zabal-zabal, ministroek gerra galdu dutela esaten dioten bitartean. Oihartzuna izan zuen, halaber, pasa den astean Omnium-ek eginiko *Help Catalonia* bideoaren parodiak, Europari laguntza eskatzen ari zaion emakumearen lekuan Saenz de Santamaria presidenteordea agertzen da Katalunia ahazteko eskatuz, Estatuaren diskurtsoa erridikulizatu. Zer esanik ez, U1-eko erreferendumaren osteko sketch-a, Franco bizirik dagoela kantatzen zuena. *Poloniak* "polako"tik (Madrilen Katalanei deitzeko erabilia) hartzen du izena, iraina euren eginez.

Azken egunotako zurrumbilotik kanpo ere funtzionatu du *Poloniak*: 2006tik, astero emititzen dute PrimeTimen. Mundu guztiarekin sartu dira; CiUren korrupzioaren parodietatik CUPen erridikulizatoraino (azken hau sarriagotan). Erakutsi dute nola egin daitekeen umoretik herria, eta Estatu kolpearen jo puntuan egongo dira.

Baten batek esan du EiTBn esku hartuko balute ez ginela enteratu ere egingo. Zer pentsatua ematen du.

Silboberriren XXIII. Txistu kontzertua

Hainbat musikari eta dantzari gonbidatu dituzte



Euskal Herriko hainbat txokotako txistulariek joko dute.

> MUSIKA I. E.

Durango Silboberriri elkarrekin antolatzen duen txistu kontzertuaren XXIII. edizioa egingo dute, bihar, 20:00etan, Durango Landako Gunean. Silboberririk gonbidatuta, Euskal Herriko hainbat lekutako txistulariak etorriko dira kontzertuan jotzera. Portugaleteko metalen laukote batek eta Barakaldoko perkusionistek ez ezik, Mikel Bikandi gitarristak eta Uxue Alonso teklidak eta bi abesbatzek ere parte hartuko dute emanaldian.

Ohi bezala, dantzak ere presentzia izango du XXIII. Txistu Kontzertuan. Azken urteetan bezala, Durango L'Atelier dantza akademiakoek ipiniko diote ikuskizunari propio sortutako koreografia. Bestalde, Ina Etxebarriak eta Jon Aranbarrik osatzen duten tango bikotea ere gonbidatu dute.

Jabier Ituarte Portugaleteko Musika Bandako zuzendariak gidatuko du emanaldia, eta Antton Mari Aldekoa-Otalorak egingo ditu aurkezle lanak.

Doinu tradizionalak zein modernoagoek osatuko dute bederatzi kantako emanaldiko erreperitorioa

Doinu tradizionalak zein modernoagoek osatuko dute emanaldiko erreperitorioa, eta hiru estreinaldi egingo dituzte. Ordubeteko emanaldian bederatzi kanta hauek interpretatuko dituzte: *Baga Biga*; *Sugoi*; *Orain ez, orain bai*; *La Vida Es Bella*; *Iñurri Pilo Pilo piramidetua*; *Bost!*; *Agur nere bihotzeko jaioterri maitea*; *Lau urtarok, lau haikuak*; eta *Radetzky martxa*.

Los amantes del Casco Viejo
de Patxo Telleria
Urriaren 28an
20:00etan

Zeruari eroria
Anodino Teatroa
Azaroaren 4an
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

URRIAK 27
20:00etan
URTEURREN JAIA LUHARTZ JAIALDIA

URRIAK 29
19:00etan
DURANGO 1936 OMENALDIA

AZAROAK 3
21:30ean
PUB QUIZ
TRIBILALA INGELESEZ



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:



3D PRINT

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

BETIXU JATETXEA

- %10 asteburuko otorduetan eta kartan, bariku eta zapatu gauetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

-%5 lehenengo erosketan.
-%10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

-% 10 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburuetakoko menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
-%10 bizikletako osagarrietan.

URKI Prentsa eta paper denda

-%10 amantaletan.
- %10 jolasetan.

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-%10 papergintzan.

UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburuetakoko menuetan.



PLATERUENA Kafe Antzokia

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



NATURALKI Belardenda-Ekodenda

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.



Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Inkiszioak Durangon eragin zuen triskantzari buruzko 'Herejía' obra estreinatuko dute

Bogoroditsie abesbatzak 'Herejía' estreinatzeko bi emanaldi eskainiko ditu Kurutzesantu Museoan, bihar



Bogoroditsie taldeko 20 abeslarik baino gehiagok, musikariek, dantzariak eta aktoreek parte hartzen dute ikuskizunean.

> IKUSKIZUNA I. E.

Herejía ikuskizun berria aurkezteko emanaldi bi eskainiko ditu Durangoko Bogoroditsie abesbatzak, bihar, Kurutzesantu Museoan. 19:00etan eta 21:00etan izango dira emanaldiak, doako sarreragaz.

Bogoroditsie abesbatzeko kideak azken urte honetan prestatzen ibili diren ikuskizuna da *Herejía*. Kantuak ez ezik, zuzeneko musika, antzerkia eta dantza ere baliatzen dituena. Durangoko Kurutzesantu Museoko oholtzan, beraz, elkarrekin in-

terakzioan arituko dira abesbatzeko 20 abeslari baino gehiago, musikariak, dantzariak eta aktoreak. Kontatu dutenez, azken urteetan egin duten esperimentaziorako bidean aurrera jarraituta sortu dute *Herejía*. Durangoko biharko bi emanaldien ostean, ahal beste lekutan eskaini gura dute ikuskizuna zuzeneko emankizunetan.

Alonso de Mella frantziskotarrak XV. mendean bultzaturiko mugimendu heretikoaren kontra Inkiszioak Durangon eragin zuen jazarpena da Bogoroditsie abesbatzak sorturiko *Herejía* obraren oinarria. Taldekideek azaldu dutenez, Jon Uga-

kantuak ez ezik, zuzeneko musika, antzerkia eta dantza ere baliatzen dituzte ikuskizunean

rriza abesbatzeko zuzendariarena da obraren hasierako ideia, eta bera jardun da zuzentzen.

Josu Unzuetak idatzirikoa testua du *Herejía* ikuskizunak. Inkisidorearen papera Ernesto Barrutiak antzeztuko du, eta Alex García zigortutako emakume batena. Dantza eta koreografiak, bestalde, Beñat Urrutia eta Unai Álvarez dantzariak arduratu dira, eta klabikordiorako moldaketak egin dituen Roberto Oviedok joko du instrumentu hori emanaldietan. Ikuskizunean zehar entzungo diren 12 musika-konposizioak Amaia Urzainkik eta abesbatzak abestuko dituzte.

Herejía ikuskizunean kontatzen den bezala, 1439. urtean, Alonso de Mella, Guillermo de Alvisa eta Ángel Tovar frantziskotarrak Durangora etorri ziren, eta otoitza eta karitatea oinarri hartuta, amodio librearen eta ondasunak elkarren artean banatzearen alde predikatzeari ekin zioten. Denbora gutxian, jarraitzaile ugari erakarri zituzten. Baina de Mella, de Alvisa eta Tovarren ideia horiek elizaren eta erregearen legeak urratzen zituztela salatu zuten, eta Inkiszioa Durangora etorri zen.

Inkiszioak mugimendu heretikoaren kontra egindako jazarpena da 'Herejía' obraren gaia

Prozesu inkisitorial anker eta bortitz baten ondorioz, berrogei durangar baino gehiago epaitu zituzten; haietako hamaiaka erre egin zituzten, eta beste zazpi emakumeren gorpuak lurpetik atera, erre eta errautsak lau haizetara bota zituzten. Bogoroditsie abesbatzeko kideek gogora ekarri dutenez, prozesua "berezik gogorra izan zen emakumeekin; zigortutako gehienak emakumeak izan ziren".

Bogoroditsie abesbatzeko kideek azpimarratu dute bihar Kurutzesantun estreinatuko duten *Herejía* lana "gertakari historikoetan oinarritutako errelato librea" dela. "Jazarpen hura bizi izan zuten gizon-emakumeei gorazarre egin eta era guztietako bidegabekeriak salatu" gura dituzte Bogoroditsieko kideek ikuskizunaren bidez.

Organo eta klarinete kontzertua, Durangon

Andra Marian izango da emanaldia gaur, 20:15ean



Solasaldia eta emanaldia eskainiko dituzte Cepedak eta Requejok.

> MUSIKA I. E.

Elkartearen 20. urteurrena ospatzeko eta elkarteko kide izandako Félix Aretxaga eta

Andrés Granados omentzeko, solasaldi-kontzertu bat antolatu du Arandoño kultur elkarte durangarrak gaurko.

Miriam Cepeda organista eta Luis Alberto Requejo klarinetista gonbidatu dituzte euren jardunaz mintzatu, eta ondoren kontzertua eskaintzeko. Doako sarrera izango du Andra Mariko emanaldiak, eta 20:15ean hasiko da solasaldia.

Rachmaninoff, Villalobos, Bach, Eccles, Radulescu, Verdi eta Bassiren obrak eskainiko dituzte

Euren lanaren inguruan berbaz jardun ostean, sei obrako egitaraua eskainiko dute bi musikariek Durangoko Andra Marian: Rachmaninoff, Villalobos, Bach, Eccles, Radulescu, Verdi eta Bassiren konposizioak eskainiko dituzte.

Igor Elortzak bihar hasiko du txapelketa, Bastidan

Txapelketa Nagusiaren fase berria hasiko dute

> BERTSOLARITZA I. E.

Finalurrekoen lehen itzuliko lehen saioan hasiko du Igor Elortza durangarrak Bertsolari Txapelketa Nagusia. Bihar, Bastidako udal kiroldegian izango da saio hori, 17:00etan. Elortzagaz batera, Agin Laburu, Jon Martin, Jone Uria, Nahikari Gabilondo eta Sustrai Colina bertsolariek kantatuko dute saio horretan.

2005eko eta 2013ko Bertso Txapelketa Nagusietako finaletan hirugarren eta bosgarren sailkatu zen Elortza, hurrenez hurren. 2013an finalera iritsi zen zortzikote hartan, aurtan


txapelketan parterik ez hartzea erabaki duen Unai Iturriaga durangarra ere egon zen.

Amuriza, Durangon

Azaroaren 12an, Durangon, amaituko da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoen lehen itzulia. Aitor Mendiluzek, Oihana Iguaranek, Iñaki Apalategik, Jon Maiak, Miren Artetxek eta Zallako final-lurdenean punturik gehien bildu zituen Miren Amurizak kantatuko dute Landako Gunean. Abenduaren 2an, Iruñean izango da azken finalurrekoa, eta 17an, BECen finala.

KALEAN

11. zenbakia



Ezagutu urtekaria
Azaroak 4 larunbata
Andra Mariko
elizpean, goizez

Bisita gidatua
Azaroak 5 igandea
10,00 gazteleraz
12,00 euskaraz
Durangoko museoan
Prezioa: 5 euro (urtekaria
opari)
Izena ematea:
946818066

gerediaga
elkartea

Durangaldeko ohiko saltokietan

SALGAI

 **Kirola**

“Jende askok aurten deskubritu du Silvia Trigueros nor den”

Urteen joanak ez duela kaltetzen dirudi; aurten ere garaipen eta podium sonatuak lortu ditu eta bere izena zale berriengana hedatu da

> ELKARRIZKETA Joseba Derteano Basque Ultra Trail zirkuituko lehenengo irabazlea da, Ehunmiletan hirugarren aldiz izan da garaile eta Tor de Geants Europako probarik gogorrenetakoa podiumera igo da, bigarren tokian. Bere lorpenek oihartzuna lortu dute hedabideetan eta askok aurten deskubritu dutela uste du. Amaitu berri duen mendiko denboraldiari eta etorkizuneko asmoei buruz jardun du ANBOTOGaz.

Atsedena hartzeko unea da eta baita urteko balantzea egitekoa ere. Zelan baloratzen duzu denboraldia?

Erregularra izan da. Emaitzek lagundu didate, postu onak lortu ditut, baina lesioengatik eta entrenamenduengatik denboraldi gogorra izan da. Emaitzek egoera arindu arren, une batzuetan sentsazioek ez didate lagundu.

Lesioak karga bat izan dira urte hasieratik, ezta?

Bai. Esaterako, hernia diskal bi aurkitu dizkidate. Medikiak esan zidanez herniak urteak eraman ditzake hor. Igeriketa saio gehiago egin ditut aurten, bizikletan ere aritu naiz... uste dut arazo hori gaudituta dudala. Aldiro gerra ematen didaten hankako arazo batzuk ere baditut.

Basque Ultra Trail Series zirkuituaren (BUTS) historian zure izena agertuko da lehenengo irabazle moduan.

Gonbidatu nindutenean, beste zirkuitu bat amaitu berritan nengoen, estresatuta amaitu ere. Proba denetan parte hartze behartzen zaituen formaturik ez nuen gura une hartan. Baina, probatu, lehenengo biak irabazi, eta hurrengoetan ere parte hartzea erabaki nuen. Gainera, ibilbideak asko gustatu zaizkit. Azkenekoa, Bilbon amaitu zena, berezia izan zen niretzat, gurasoak helmugan zain zeudelako. Ni zuzenean ikusten ninduten lehenengo aldia zen eta ilusio handia egin zidan.

Ehunmilak hirugarrenez irabazi duzu. Neurria hartuta diozun proba da.

“**Nutrizionista bategaz hasi eta hile bi irau nuen; ez da zorrozki daroadan zerbait”**

“**Gustatzen zaidalako nabil korrika eta ez emaitzen bila nabilelako”**

Nire bizitzako lehenengo txapela Ehunmiletan irabazi nuen, proba laburrean. Gainera, Gipuzkoan askok ezagutzen naute, han egiten dut-eta lan. Lasterketa hasieratik amaierara nire ize-na etengabe entzuten dut. Proba berezia da. Probaren ostean, familiagaz jateko ohitura dugu, hanburgesak edo dena delakoa.

Hanburgesak zuretzat ere? Elikadura ikaragarri zaintzen dute askok...

Ez da nire kasua. Nutrizionista bategaz hasi nintzen eta hile bi irau nuen. Sano jatea gustatzen zait, barazkiak eta abar. Beraz, ez da arazoa. Baina gauza gozoa ere gustuko dut. Afalostean izozki bat jatea, esaterako. Mendi lasterketak hobya dira, ez naiz honetatik bizi eta elikadurarena ez da zorrozki daramadan zerbait. Errendimendu onaren sekretua entrenamenduetako konstantzia da.

Tor de Geants zen urteko hitzordu nagusia. Bigarren amaitu zenuen 97 orduko ahalegina eginda. Pozik?

Oso pozik nago. Gustura egon nintzen. Nire inguruko dokumentala egiten ari diren bi lagun ere hantxe zebiltzan grabazioetan... Egun politikak izan ziren.

Dokumental bat grabatzen ari dira zuri buruz?
Garakordada proiektuko Mikel

eta Iñaki Urresti dabilta horretan. Kasualitatez, ideia proposatu zidaten egun berean heldu zitzaidan Tor de Geants-en parte hartzeko gonbidapena. Prestakuntzan lagundu didan konpromisoa izan da. Nigaz etortzeko kamera berria erosiko zutela, dron bat zeramatela... Jartzen ari ziren ilusio guztia ikusita, neurea eman behar nuela sentitzen nuen. Entrenatzera irteteko akuilua izan zen. Zorionez, dena ondo joan zen.

Eta xanpainagaz ospatu zenuen lorpena.

Lasterketaren bat irabaztearren emandako botilak denbora dezente zeraman etxean. “Botila honegaz zer? Geugaz eramango dut”, esan nion senarrari. Furgonetan gorde genuen, ondo irte ten bazen ateratzeko, eta, bestela, beste inork ez ikusteko.

Munduko hedabideen arreta erakartzen duen proba da. Kazetariak eta argazkilariak no-nahi. Zelan eraman zenuen alderdi hori?

Orain ez dit ardura, baina, hasieran, ez zen horrela. Ehunmiletara lehenengoz joan nintzenean jendea niri begira geratzen zela ohartu nintzen, eta nire ize- nez deitzen zidatela. Orduan ez zitzaidan eroso egiten. Orain, kalean argazki bat eskatzen badidate, esaterako, ez dit ardura.

Zenbat bider galdetu dizute ea datorren urtean proba errepikatuko duzun?

Askotan. Hona heldutakoan, lehenengo galdera horixe izaten zen. Orain momentuagaz gozatu gura dut, baina gero eta argiago dut itzuli gura dudala.

Probako une batean, zure aurkari bat atzerago zetorrela uste eta orpoz orpo zeneukala ohartu zinen. “Urterik urtera maila handiagoa dago”, izan zen zure komentarioa.


Bai, duda barik. Emakumeetan gaur eguneko denborak orain urte batzuetakoekin alderatuta, hori nabaritu daiteke. Lehen baino emakumezko korrikalari gehiago dago eta, gainera, hobeto prestatuta daude. Gero eta

Silvia Trigueros Garrote

Abadiño, 1976

Durango Kirol Taldea

Orain zazpi urte hasi zen mendi lasterketetan korrika. Afizio berantiarra bezain emankorra izan du.



Lehior Elorriaga



Basque Ultra Trailen helmugaratzen, bere lobari eskutik helduta.



Trigueros ezkerrean, Italiako Tor de Geants probako podiumean.

gaitzagoa izango da goian mantentzea.

Zeuren urterik urtera gero eta hobeto zabiltzala dirudi.

Tira, aurtengoa ez da izan nire denboraldirik onena. Aurten oihartzun handiagoa lortzen nabil hedabideetan eta, behar bada, hori da gertatzen dena. Jende askok aurten deskubritu du Silvia Trigueros nor den.

41 urte dituzu. Gainbeherak kezkatzen zaitu? Noiz helduko den, zer egingo duzun...

Nire senarragaz askotan berba egin dudana kontua da. Gaitzera ez da urterik urtera hobetzen joatea, baizik eta gora heltzean han mantentzea. Gazteak datozen heinean, gu ordezkatzeko joango dira. Bizitzako legea da. Begira, gustatzen zaidalako nabil korrika, ez emaitzen bila nabilelako. Neure buruagaz gustura geratzeko lehiatzen naiz. Esaterako, Tor de Geants-era irabazteko itzuli gura dut? Ez. Eman dezakedan dena eman dudala sentitzea dut helburu, eta ez dut arantzarik ez irabazi izanagatik.

Beraz, dena ez da irabaztea.

Ez. Aurten fisikoki zein mentalki ehuneko ehunetan egon gabe parte hartu dut lasterketa batzuetan. Egingo nuen denboragaz arduratu barik. Eta ez dela erraza konturatu naiz. Izan ere, egiten dudana egiten dudala, nire denborak alderatu egingo dituzte. Nire semeak ere galdetu izan dit. “Jo, ama, gaur bosgarren amaitu duzu. Zergatik?”. “Ba, besteak ere sasoiak daudelako, baina ondo pasatu dut”, erantzun izan diot. Asteburua kanpoan igaro, bidaiari familiagaz gozatu... hori da nire helburua, baina, sarritan, ez didate sinesten.

Silvia Triguerosak noiz utziko dio korrika egiteari?

Nire semeak bizkarrean motxila eramaten hasten direnean, orduan utziko diot korrika egiteari. Mendizalea naiz eta trekking luzeak egitea gustatzen

zait. Beraz, seme biak nork bere motxila eramateko kapaz direnean, nire agurra helduko dela uste dut.

Semeak aipatu dituzu. Kontatu digutenez, amaren bidea hartu dute.

Eneko 8 urte ditu eta Markek 10. Biak asko dabilzta korrika. Pipermina dute hanketan. Iaz, San Silvestre proban parte hartu eta nork bere lasterketa irabazi zuen. Niregana hurreratu eta esan zidaten: “Ama, guk irabazi egin dugu, ea zuk zer egiten duzun”. Ba, irten eta metro bira erori egin nintzen (barreka). Baina gero irabaztea lortu nuen.

Bizikletan askotan ibiltzen zarela esan didate. Prestakuntzarako darabilzu ala hobya da?

Gustatzen zaidalako ibiltzen naiz. Entrenamendu luzeak desgaste handiegi barik egiteko modua da. Batez ere errepi-dera irten dut aurten. Senarrak mendiko bizikleta erregalatu dit. Uste dut, arriskuagatik, errepidetik atera gura nauela.

BTT lasterketaren batean parte hartzeak tentatzen zaitu?

Ez. Tentatzen nauena egunen batean triatloia probatzea da, baina, momentuz... Horretan dabilen lankide bat dut eta bere neoprenozko jantzia eskaini dit igerian aritzeko. Ez dakit, gorputzak eskatzen didanaren arabera hartuko dut erabakia.

Lasterketetan baduzu aitoritzeko modukoa den maniarren bat?

Hasi nintzenean ez nien horrelako kontuei erreparatzen, baina, azken aldia, apurtxo bat maniatikoa bihurtzen nabil, batez ere, galtzerdiekin. Ehunmilak batean arazoak izan nituen oin-zolan eta harrezkero... Aurten Euskal Herri erdi zeharkatu dut gura nituen galtzerdiak erosteko. Marka konkretu baten bila nenbilen. Ezin nuen aurkitu eta desesperatzen hasita nengoan.



330 kilometro eta 24.000 metroko desnibela ditu Tor de Geants lasterketak.

Durangoko Gau Krosa, egun batez izar sentitu gura duenaren proba

Alde Zaharreko kalearteak sortzen duen giroa bertatik bertara sentituko dute parte-hartzaileek

> KORRIKA J.D.

Durangoko Gau Krosa izar handiak eta korrikalari afizionatuak maila berean jartzen dituen lasterketa da. Parte hartzen duen edonor berezi sentiarazteko ezaugarriak ditu. Doan postuan doala, Alde Zaharreko kale estuetatik gora eta behera dabilen korrikalariak protagonista den sentsazioa izaten du, zaleak beren txalo eta animo oihuekin ondo-ondoan dituela. Helburu horregaz sortu zuten, eta helburu beragaz egingo dute hirugarren aldian zapatu honetan.

Durungaldea Running taldeak antolatutako proba nagusia 20:00etan hasiko da, Santa Anan. Gaututa egongo da ordu-rako eta horixe da lasterketak eskaintzen duen ezohiko beste osagai bat.

Ibilbidea iazko berdina izango da, baina kontrako norabidean egingo dute. Artekaletik jaitsi, Ezkurditik igaro eta Uribarri kaletik igoko dira Alde Zaharrera, han hainbat kaletan gora eta behera ibiltzeko. Zir-kuitu horri itzuli bi emango

dizkiote, bost kilometroko lana osatu arte. Iazko 250 parte-hartzaileak berdintzea itxaroten dute antolatzaileek. Aurretiazko izen-ematea gaur gauerdian amaituko da kirolprobak.com webgunean (10 euro).

Umeen lasterketak

Aurretik, 19:00etan, umeen lasterketak antolatuko dituzte. Iaz baino ordu erdi lehenago hasiko dira, nagusien lasterketako antolaketa errazteko. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke eta euro bat izango da. Lehenengoz ordaindu beharko da, eta “antolaketa gastuei aurre egiteko” hartu duten neurria dela adierazi du Dabid Garcia Durungaldea Runningeko arduradunak. “Opariak, hornidura, plazako musika... klubari gastu handia eragiten dio eta lasterketa hau mantentzeko hartu dugu erabakia”.

Musika, zozketak...

Lasterketak sustatu gura duen giro herrikoia musikagaz eta askotariko zozketekin osatuko



Iaz 250 parte-hartzaile izan zituen eta aurten ere kopuru horren bueltan egotea itxaroten dute. Maialen Zuazubiskar

